

6. Eranskinak

1. Eranskina. Glosategia

Generoa: Gizarte- eta kultura-eraikuntza bat da. Gizarte bakoitzak sexu bakoitzari, hau da, gizonei edo emakumeei, berezkozat esleitzen dizkion sinesmenek, nortasunaren ezaugarriek, jarrerak eta sentimenduek osatzen dute generoa (Rodríguez, 2016, Rodríguezek eta Facalek aipatua, 2019).

Sexua: Sexua eraikuntza naturala da. Sexua pertsona jakin baten ezaugarri genetikoek eta biologikoek osatzen dute eta ezaugarri sexual horien bidez, pertsonak biologikoki gizon edo emakume gisa bereizten dira. Nahiz eta sexu hau gehienetan bitarra izan, MOE (Munduko Osasun Erakundea)-ren arabera, munduko pertsonen % 1-a ezaugarri biologiko maskulino eta femeninoekin jaiotzen da. Azken hauei intersexual izena ematen zaie (Herrero eta Pérez-Cañaveras, 2007; Rocal eta Raboso, 2013).

Heteroaraua: Heteroaraua heterosexualitatea sexualitate normal eta natural gisa ezartzen duen erregimen sozial eta kultural tradizionala da. Hau da, azken hau, gizarteko pertsona guztiak heterosexualak direla edo heterosexualitatea gizakiaren egoera lehenetsia dela uste duen sistema da (Stee-eilas, 2015).

Sistema bitarra: Gure gizartean ezarrita dagoen sistema honek pertsonak bi sexutan banatzen ditu; alde batetik, gizonak, eta bestetik, emakumeak. Beraz, sistema bitarrak aurreko bi kategoria hauetatik kanpo dauden horiek baztertzen ditu. Izan ere, eredu bitar honetan sexua, generoa eta sexualitatea, konkordantzia, elkarri lotuta daude (Stee-eilas, 2015).

Heterosexuala: Pertsona batek bere genero ezberdineko pertsonetikiko harreman afektiboa, emozionala eta sexuala sentitzeari esaten zaio, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko nahia izanik (Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos, 2013).

Homosexuala: Pertsona batek bere genero berdineko pertsonetikiko harreman afektiboa, emozionala eta sexuala sentitzeari esaten zaio, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko nahia izanik. Lesbiana terminoak orokorrean emakumezkoen homosexualitatea zehazten du; gay terminoa, aldiz, gizonezkoen homosexualitateari erreferentzia egiteko erabiltzen da (Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos, 2013).

Bisexuala: Pertsona batek bai bere genero ezberdineko, bai bere genero berdineko pertsonetara harreman afektiboa, emozionala eta sexuala sentitzeari esaten zaio, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko nahia izanik (Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos, 2013).

2. Eranskina. Irakasleari bideratutako *Sentitzen zarena zara* material didaktiko berritzailearen gida



SENTITZEN ZARENA ZARA



IRAKASLEEI
ZUZENDUTAKO
GIDA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Helburuak, kompetentziak eta edukiak	2
2.1. Helburuak	2
2.2. Konpetentziak	2
2.3. Edukiak	4
3. Nori zuzenduta	4
4. Metodologia	4
5. Proposamen didaktiko berritzailearen deskribapena	5
5.1. Oinarrizko kontzeptuak: Sexua eta generoa	7
5.2. Transgeneroa	9
5.3. Transgeneroa eta transexuala	11
5.4. Orientazio sexuala	12
5.5. Transfobia	14
5.6. Gaiaren orokortzea	16
6. Material osagarria	17
7. Eranskinak	18
7.1. Eranskina. Jardueren eskema	18

1. Sarrera

Sentitzen zarena zara gizarteko sexu-aniztasuna hezkuntza eremuan ikusgarri bihurtzeko material didaktiko berritzaile bat da. Beraz, aurreko helburua lortzeko, oinarria transgenero gaian jarrita dauka. Horretarako, webgune bat diseinatu da joko gisa. Ondorengo estekan topa dezakezu: <https://alajazne.wixsite.com/sentitzenzarenazara>. Bertan, ikasleek transgeneroen inguruko jarduera desberdinak aurkituko dituzte, baita gaiari lotutako baliabideak ere eskuragarri izango dituzte.

2. Helburuak, konpetentziak eta edukiak

Material didaktiko berritzaile honen helburuak, konpetentziak eta edukiak, Oinarritzako Hezkuntzako Curriculuma oinarrian hartuz zehaztu dira (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015).

2.1. Helburuak

Material digital berritzaile honen helburu orokorra, ikasleak gizarteko transgeneroen presentziaz ohartzea eta azken hauen nortasuna ezagutzea eta errespetatzea da. Hala ere, azken hau lortzeko, bestelako helburu zehatz batzuk eskuratu behar dira prozesuan zehar:

- Sexu-aniztasunaren inguruko kontzeptuak eta ezagutzak argitasunez ezagutzea eta ulertzea, sexu aniztasunarekiko jarrera baikorra garatuz.
- Transgenero eta hortaz, sexu-aniztasunetik abiatuta, gizartean dagoen aniztasunaz ohartzea, dibertsitatea era positiboan baloratuz.
- Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutzeaz gain, besteenak ere onartzea eta errespetatzea.
- Gizabanakoen arteko elkarbizitza lasaia eta egokia ahalbidetzeko, eguneroko bizitzan gizarte-trebetasunak eta bizikidetzara-arauek oinarri izatea.

2.2. Konpetentziak

ONARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK

Konpetentzia sozial eta zibikoa

Material digital honetan konpetentzia sozial eta zibikoa garatzen da nagusiki. Izan ere, ikasleei bakoitza banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi behar dutela ulertarazi nahi zaie, gizarteaz jabetuz eta horrek dakartzan aniztasuna onartuz. Gainera,

<p>material digitalaren bidez gizarte-egoera errespetatzea lortu nahi da, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita. Beraz, ikasleek giza eskubideetan oinarritutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratuko dituzte; hauek gaur egungo bizitza kolektiboa eta anitza ulertzeko eta demokrazia-zko eta bakezko elkarbizitza errazteko beharrezkoak direlako.</p>
<p>OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK</p>
<p>Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia</p> <p>Hitzeko, hitzik gabeko eta komunikazio digitalerako kompetentzia, alde batetik, ikasleek idatzizko komunikazio ulerker, jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorra ahalbidetean lantzen da. Beste alde batetik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia modu kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzean eskuratzen da, ikasteko eta gizartean parte hartzeko xedearekin.</p>
<p>Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</p> <p>Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia, transgenero gaiaren inguruan eskuratutako informazioa aurkeztearekin eta erresgistratzearekin batera, azken ezagutza hau ulertzean eta interpretatzean (pentsamendu analitikoa eta kritikoa) sustatzen da. Horrez gain, kompetentzia hau gaiari lotutako ideiak sortzean, hautatzean eta adieraztean (pentsamendu sortzailea), baita baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitean ere lantzen da, ikasitakoaz baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.</p>
<p>Elkarbizitzarako kompetentzia</p> <p>Elkarbizitzarako kompetentzia ikasleek norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazi ez ezik, besteenak ere ezagutu eta errespetatzen dituztenean garatzen da. Gainera, kompetentzia hau giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren arauak betetzean eskuratzen da.</p>
<p>Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia</p> <p>Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia ideiak edo proiektuak sortzean eta hauen bideragarritasuna aztertzean lantzen da; baita planifikatutako ekintzak gauzatzean eta haien baliagarritasuna ondorioztatzean ere. Horrez gain, kompetentzia hau egindako ekintzak ebaluatzean eta haien berri ematean sustatzen da.</p>
<p>Norbera izaten ikasteko kompetentzia</p> <p>Kompetentzia hau ikasleek batez ere hizkuntza digitala, ikaskuntza-prozesuak eta estilo kognitiboa autorregulatzean garatzen da, baita emozioak, sexu-nortasuna, motibazioa eta portaera sozial eta morala kontrolatzean ere. Amaitzeko, prozesuan zehar norberaren erabakien eta betebeharren ardura hartzean, norbera izaten ikasteko kompetentzia indartzen da.</p>

2.3. Edukiak

- Transgeneroa eta honi lotutako edukiak eta informazioa identifikatzea, ulertzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Ezagutzak adieraztea, argudioak azaltzea eta arrazoiak ematea.
- Erantzukizun pertsonala eta soziala garatzea.
- Transgeneroekiko diskriminazio eta bidegabekeria soziala esanbidez baztertzea.
- Gizarteko kide guztiekiko elkartasuna sustatzeko bizikidetzara-arauek, prozedurak eta jarrerak eskuratzea.

3. Nori zuzenduta

Proposamen didaktiko berritzaile hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Izan ere, alde batetik, heldutasun maila bat behar da gizarteko aniztasuna ezagutzeko, ulertzeko eta gaiaren gaineko gogoeta egin ahal izateko. Beste alde batetik, ezarritako helburuak lortzeko, ikasleek gaitasun kognitiboa ahalik eta garatuen izan behar dute, irakurmen, idazmen eta entzumen gaitasunak oinarrizkoak eta nahitaezkoak izanik edukiak ulertzeko. Azkenik, baliabidea digitala denez, IKT-en erabilera arduratsua eta egokia ezinbestekoa da; beraz, ikasleek berriazko trebetasunak garatuta izan behar dituzte jarduerak aurrera eramateko eta material honen xedea lortzeko.

4. Metodologia

Sentitzen zarena zara material digital berritzailea da, non ariketez gain, bestelako baliabide dinamiko, pedagogiko eta ludiko desberdinak ere eskuragarri dauden. Azken hauetan, ikasleen motibazioa eskuratzeko asmoz, musika eta irudi deigarrien presentzia nabarmena da. Izan ere, ikasleak materialarekiko motibatuta egoteak gaiarekiko arreta eta interesa piztea dakar, ikaskuntza-helburua lortzeko beharrezkoa izanik.

Proposamen hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da IKT-en erabilera. Gailu digitalen artean ordenagailua erabiltzea gomendatzen da, baliabideak eta ezagutzak argitasun gehiagorekin ikusi ahal izateko.

Ildo beretik, webguneko jarduerak era digital batean burutzeaz gain, ikasleek era pribatu batean landuko dituzte azken hauek. Gomendagarria da ikasleek lana era autonomoan egitea, ikasle bakoitzak bere usteak eta ekarpenak askatasunez azalatu ahal

izateko. Izan ere, gaur egungo gizartean, ikasle askok haien sentimenduak eta emozioak partekatzeke zailtasunak izan ditzakete, gizartearen gaitzespena pairatzeko beldurrez.

Beraz, indibidualtasuna oinarritzko baldintza izanik, giro egoki bat bermatzea ere garrantzitsua da. Hau da, errespetua ezinbesteko balioa izan beharko da, elkartasuna eta lasaitasuna aurreko ingurunea ahalbidetzeko ere funtsezkoak izanik. Material honetan ikasleen arreta eta ulermena gaitasun nabarmenak izango dira, eskuratutako ezagutza horiek burutu beharko dituzten ariketetan modu eraginkor batean aplikatzeko.

Horrez gain, material digital honen bidez lortu nahi diren helburuak lortzeko eta ikaskuntza-garapen bat eskuratzeko, ikasleek denbora nahikoa izatea funtsezkoa da. Hori dela eta, jolas honek gutxi gora behera 3 orduko iraupena duela berretsi da.

Jokoa osatzen duten baliabide guztiak euskaraz daude, material didaktiko hau Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko pentsatuta dagoelako. Hortaz, ikasleek ere hizkuntza berdina oinarrian izan beharko dute jardueri erantzutean.

5. Proposamen didaktiko berritzailearen deskribapena

Sentitzen zarena zara ikasleak gizarteko sexu-aniztasunaren inguruan errespetuz hazteko eta hezteko material didaktiko berritzaile bat da. Hala ere, bertan transgenero gaia ez ezik, eskuma eta ezkerreko norabideak hautatuz edo *aurrera* jarraitzeko botoia sakatuz, kolektibo honen inguruko alderdi desberdinak ere lantzen dira. Hau da, material honek transgenero gaia ataza desberdinetan banatzen du. Hortaz, azken honek irakasleari interesatzen zaion azpigaia jorratzeko askatasuna ematen dio, gaia osotasunean landu beharrean, alderdi batean oinarritutako ikaskuntza-garapen zehatzago bat lortuz.

Beraz, transgenero gaiaren ikaskuntza sustatzeko webgunea 15 ariketa desberdinez osatuta dago, nahiz eta soilik horietako 10 burutzen diren norabide bakoitzetik joanda (1. eranskina). Horrez gain, kontzeptu edo eduki zehatz batzuk ulertzeko, azalpen, bideo eta baliabide desberdinak ere eskuragarri daude webgunean. Hori dela eta, ariketak garatzean, entzungailuek berariazko garrantzia izango dute, ikasle guztiek ez dutelako erritmo berdina jarraituko ezta ikus-entzunezko material berdina izango ere.

Ildo beretik, aipatzekoa da, ariketetan erantzun desegokia aukeratzekoan, jarduera guztiek berriro saiatzeko aukera, aukera egokia edo erantzunaren inguruko azalpen bat eskaintzen dutela, ikasleei ikaskuntza osagarri bat ahalbidetzeko.

Jarduerekin hasteko, webgunean sartu orduko, *Sentitzen zarena zara* webgunearen sarrera orria eskuragarri dago. Bertan, batez ere, burutuko den gaia eta lortu beharreko erronka ezagutzeko informazioa ahalbidetzen da.



SENTITZEN ZARENA ZARA

Ongi etorri "[Sentitzen zarena zara](#)" web orrira!

Webgune honen helburu nagusia gizarteko sexu-aniztasuna ezagutzea eta onartzea da, hortik abiatuta gizarteko pluraltasunarekiko errespetua oinarri izanik. Modu horretan, elkarbizitza egokia eta lasai izateko aukera ahalbidetzen da. Beraz, hurrengoko jardueren bidez ikasleek aurreko helburuak lortzeko aukera izango dute.

Oharra: Webgune honetan agertutako argazki eta bideoak helburu didaktiko eta hezkuntza-helbururako erabili dira, helburu ekonomikorik gabe.

1. Irudia. Sentitzen zarena zara webgunearen sarrera orria

Sentitzen zarena zara botoia sakatuz gero, webgunearen testuingurua eta arauak agerian geratzen dira, modu horretan transgeneroen errealitatean sartzen hasteko aukera emanez. Gainera, ikasleei materialaren funtzionamendua azaltzen zaie; hau da, eskuma-ezkerra aukeraketaren arabera jarduera desberdinak burutuko dituztela, nahiz eta oinarritzko edukia bi norabideetatik joanda berdina izan. Horrez gain, batzuetan, aurrera jarraitzeko aukera baino ez dago. Aipatzekoa da, zenbait kasutan eskuma edo ezkerra botoia sakatzean, ibilbidea eten egiten dela. Hortaz, kasu horietan, *itzuli* botoiaz baliatuz, ikasleek ibilbidearen beste norabidea hautatu beharko dute jarduerak egiten jarraitzeko. Dena den, ikasleek kasu horietan soilik izango dute atzera bueltatzeko aukera.

JOKOAREN TESTUINGURUA

Labirinto batean harrapatuta zaude, eta bertatik ateratzeko modu bakarra transgeneroen inguruko jarduera batzuk burutzea da. Beraz, trans identitateen errealitatea ikusi eta ulertzean, inguratzen zaituen gizarte anitza ondo ezagutzeko, ulertzeko eta errespetatzeko gai izango zara, pertsona bakoitza duintasunez eta berdintasunez tratatuz.

JOKOAREN ARAUAK

1. Ariketa guztiak bakarka eta euskaraz erantzun behar dira.
2. Ariketa guztiak erantzutea ezinbestekoa da.
3. Galderak errespetuz erantzun behar dira.
4. Jardueretan adi egotea eta interesa jartzea beharrezkoa da, ezagutzak behar bezala ulertu eta barneratu ahal izateko.

Ezkerra edo eskumara joateko aukera izango duzu, horren arabera jarduera desberdinak eginez. Animo!

Has zaitez!

2. Irudia. Webgunearen testuingurua eta arauak

5.1. Oinarrizko kontzeptuak: Sexua eta generoa


Has zaitez! botoia sakatuz gero, material digital berritzaile honen lehenengo ataza lantzen da: sexua eta generoa. Izan ere, aurretik azaldu bezala, transgeneroen inguruko alderdi desberdinak lantzen dira webgune honetan, sei zehatz-mehatz. Beraz, lehenengo atal hau aurrera eramateko, ikasleek hiru zeregin burutuko dituzte. Hasteko, ikasleek sexua eta generoaren arteko desberdintasuna ulertu beharko dute, ondoren gai nagusia garatu ahal izateko, azken bi kontzeptu hauek gaiaren oinarria baitira. Horretarako, ikasleek jada sortutako *Sexua eta generoa desberdintzen* abestia entzun beharko dute (<https://drive.google.com/file/d/1KwT8Wa2j5I91WBYQvYnqpePB5pepJYO0/view?usp=sharing>).



3. Irudia. *Sexua eta generoa desberdintzen* abestia

Ikasleek nahi duten guztietan entzun ahal izango dute abestia, oinarrizko kontzeptu horiek ulertzea eta barneratzea ezinbestekoa baita. Dena den, aurreko hauek indartzen jarraitzeko, ikasleek *Sexua eta generoa berdina al da?* jarduera aurrera eramango dute.

Bertan, sexua eta generoaren inguruko bideo bat ikusiko dute eta tarteka galdera batzuk erantzun beharko dituzte.



4. Irudia. Sexua eta generoa berdina al da? jarduera

Alderdi hau lantzeko azken jarduerari dagokionez, ikasleek egiten duten aukeraketaren arabera, *Nor da nor?* edo *Ba al dakizu nor naizen?* jolasa burutuko dute. Izan ere, aipatu den bezala, jarduerak izen eta formatu desberdina izan arren, garatutako edukia berdina edo oso antzekoa izaten da. Bertan, ikasleek pertsona desberdinen irudiak eta izenak ezagututa eta sexua eta generoaren inguruko pistak oinarri izanda, deskribatzen den pertsonaia asmatu beharko dute.




5. Irudia. Nor da nor? jarduera



6. Irudia. Ba al dakizu nor naizen? jarduera

5.2. Transgeneroa

Behin ikasleek generoa eta sexua bereizten dituztela, gai nagusiaren lanketa garatzen hasiko dira hiru jardueren bidez. Lehenengoan, aukeratutako norabidearen arabera, *Munduak guztiarentzat beharko luke* bideoa ikusiko dute (*Eta zer da transgeneroa* jarduera), edo aldiz, bideoa ikusi beharrean, istorio berdinen komikia irakurriko dute (*Transge...zer?* ariketa). Ondoren, aurretik entzundakoaren edo irakurritakoaren inguruko galdera batzuk erantzungo dituzte, transgenero terminoa ezagutzeko gai diren egiaztatzeko.




7. Irudia. Eta zer da transgeneroa? jarduera




8. Irudia. Transge...zer? jarduera

Jarraian, aurreko jardueran landutako transgenero kontzeptuaren ikasketa egiaztatzeko, ikasleek *Inguratzen gaituen gizartea ezagutzen* jarduera burutuko dute. Ariketa honen gaitasun nagusia ulermena izango da; izan ere, ikasleek ordura arte ikasitako guztia azken jarduera honetara transferitu beharko dute. Hau da, jardueran agertutako pertsonaiak generoaren arabera neska edo mutil sailkatu beharko dira, baita transgeneroak direnak borobildu ere.



9. Irudia. Inguratzen gaituen gizartea ezagutzen jarduera


Hala ere, hurrengo atalera jarraitzeko prest dauden berresteko, edozein norabidetik abiatuta, ikasleek transgeneroen inguruko galdera bati erantzun beharko diote *mailaz igarotzeko gai al zara?* izenekoa.



10. Irudia. Mailaz igarotzeko gai al zara? jarduera

5.3. Transgeneroa eta transexuala

Gaur egungo gizartean, transgenero eta transexual kontzeptuak askotan nahasten diren bi termino dira eta beraien erabilera okerrak min handia sortu dezake. Hori dela eta, eta ikasleei hitz bakoitzaren esanahia argitasunez azaltzeko, ikasleek irudi interaktibo bat ikusiko eta entzungo dute.



11. Irudia. Irudi interaktiboa

Ondoren, ulertutakoa praktikan jartzeko, *hizkera egokia garatu*, ezkerretik joanda, edo *sinonimoak al dira?*, eskumatik joanda, jarduera burutuko da. Bertan, ikasleek *Ur*

handiko telesaileko pasarte bat ikustearekin batera, transgenero eta transexual izatearen desberdintasuna finkatuko dute, jarraian galdera batzuei erantzunez.



12. Irudia. Hizkera egokia garatu jarduerara



13. Irudia. Sinonimoak al dira? jarduerara

5.4. Orientazio sexuala

Orientazio sexuala pertsona bakoitzak bestetikiko duen erakargarritasuna da. Hala ere, askotan genero identitatea eta orientazio sexuala elkarri lotuta doazela uste da. Hori dela eta, ikasleei transgeneroen orientazio sexualaren inguruan zabaldua dagoen mito bat aurkeztuko zaie: transgenero gehienak homosexualak dira. Beraz, aurrekoaren errealitatea erakusteko, ikasleek sortutako *Orientazio sexuala* izeneko bideo bat ikusiko dute (https://www.youtube.com/watch?v=FID_4_XjhWE). Bertako protagonista nagusia neska transgenero bat da eta bere esperientzia azaltzearekin batera, bera heterosexuala dela azaltzen du.




14. Irudia. Orientazio sexuala bideoa

Ikasleek bideoa ikusi aurretik, bertan erabiltzen diren kontzeptuak argitasunez ulertzeko, *azalpen didaktikoa* botoia sakatuz gero, homosexual eta heterosexual terminoen inguruko azalpenak eskuragarri izango dituzte.




15. Irudia. Azalpen didaktikoa

Ikasleek lortutako ezagutzaz baliatuz, hurrengo jarduera egin beharko dute, ezkerreko norabidetik joanda, *mitoak apurtzen* edo eskumakotik joanda, *egiaren bila* deiturikoa. Bertan, egin behar desberdinak izango dituzte. Alde batetik, bikotearen partaide bat emanda eta bikotea heterosexuala edo homosexuala dela zehaztuta, ikasleek irizpide hori betetzeko behar den bikotearen bigarren partaidea aukeratu beharko dute. Bestetik, bikotea agertuta, heterosexuala ala homosexuala den asmatu beharko dute. Azkeneko jarduera, aldiz, alderantziz izango da; hau da, bikotea heterosexuala ala homosexuala dela jakinda, argibidean adierazitako bikotea zein den aukeratu beharko dute. Aipatzekoa da, hautaketa egiterako orduan, ikasleek bi aukera posible izango dituztela, bata okerra eta bestea egokia.



16. Irudia. Mitoak apurtzen jarduera



17. Irudia. Egiaren bila jarduera


5.5. Transfobia

Atal honetan, ikasleek gizartean gorputz ez normatiboekiko ematen den diskriminazioa landuko dute, azken hau transfobia deituz. Beraz, transfobiaren esanahiaz ohartzeko, ikasleek Ekairen istorioa ezagutuko dute egunkariko albiste baten bidez.



18. Irudia. Ekairen istorioa


Hortaz, gertutakoa irakurri ondoren, ikasleei honen inguruan hausnartzera gonbidatuko zaie *Idatzi ezazu* botoia sakatuz; horretarako, ikasleek *Band* plataforma erabiliko dute. Izan ere, bertan ikasleek haien ondorioak era pribatu batean partekatzeko aukera izango dute; hau da, soilik moduluaren administratzaileak onartzen dituen horiek izango dute sartzeko eta argitalpenak ikusteko aukera. Era horretan, ikasleak eta haien ekarpenak babesten dira. Bertan, ikasleek Ekairen laguna izateko edo laguntza emateko egingo zuketena azalduko dute, betiere errespetua oinarri izanda.




19. Irudia. Transfobia: Ekai

Jarraian, transfobia onartezina dela ikusgarri usteko, ezkerreko botoia sakatuta, *ezjakintasunaren kontrako sendagaia: abestea* ariketan, ikasleek *Goazen* teleaileko abesti batzuk entzungo dituzte. Ondoren, abesti horiek transmititu dituzten mezuak hautatu beharko dituzte, hauek errespetu eta elkarbizitza mezuak izanik. Ikasleek eskumako norabidetik joanda, jarduera berdina burutu beharko dute, baina

bidegabekeriaren aurkako borroka guztion artean irabaziko dugu izenarekin. Beraz, modu horretan, bai transgeneroekiko, bai gizarteko pertsona guztiekiko errespetua beharrezkoa dela transmitituko zaie ikasleei, bizikidetzaren arauak oinarri izatea funtsezkoa izanik elkarbizitza lasai eta onuragarri bat ahalbidetzeko.



20. Irudia. Ezjakintasunaren kontrako sendagaia: abestea jarduera




21. Irudia. Bidegabekeriaren aurkako borroka guztion artean irabaziko dugu jarduera

5.6. Gaiaren orokortzea

Azken atal honetan, ikasleek jada sexu-aniztasunari buruzko hainbat ezagutza izango dituzte eta azken jardueran lortutako mezu baikorretan oinarrituta, bai ezkerretik, bai eskumatik abiatuta, ikasleek mikroipuin bat idatzi beharko dute. Jarduera *Band* plataformaren bidez burutuko dute, *Orain zure txanda da* botoia sakatuz. Gaia azken hau izanda, bestelako ezaugarri guztiak haien esku egongo dira, hau da, pertsonaiak, espazioa

eta denbora, besteak beste. Guztiak jaso eta irakurri ondoren, irabazle bat aukeratuko da, zeinak *Jonek Jone izan nahi du* liburua sari gisa jasoko duen.




22. Irudia. Band: Mikroipuin lehiaketa

6. Material osagarria

Material digital honek hainbat ataletan ikasleek gaiaren inguruan ez ezik, bere gizartearen inguruan pentsaraztea ere eskatzen du. Beraz, proposamen hau hausnarketa bideratzeko material gisa ere proposatzen da. Izan ere, alde batetik, ikasleei euren nortasunaz edo genero identitateaz gogoeta egiteko eta azken hau zehazteko aukera ematen die. Bestetik, aldiz, ikasleek gizarteko aniztasuna era positibo batean baloratzeko parada agerian uzten du, errespetuan eta onarpenean oinarritutako bizitza kolektiboa ahalbidetuz. Hortaz, gaiaren inguruan hausnartzean, gaur egungo gizartean beharrezkoak diren balioak ere sustatzen dira, hala nola tolerantzia eta ulermena.

7. Eranskinak

7.1. Eranskina. Jardueren eskema



KOLOREAK	TRANSGENERO GAIA LANTZEKO ATAZA DESBERDINAK
	Oinarrizko kontzeptuak: sexua eta generoa
	Transgeneroa
	Transgeneroa eta transexuala izatearen desberdintasuna
	Orientazio sexuala
	Transfobia
	Transgenero gaiaren orokortzea

3. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* material didaktiko berritzailearen jarduerak

3.1. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* webguneko sarrera orria



SENTITZEN ZARENA ZARA

Ongi etorri "[Sentitzen zarena zara](#)" web orrira!

Webgune honen helburu nagusia gizarteko sexu-aniztasuna ezagutzea eta onartzea da, hortik abiatuta gizarteko pluraltasunarekiko errespetua oinarri izanik. Modu horretan, elkarbizitza egokia eta lasai izateko aukera ahalbidetzen da. Beraz, hurrengoko jardueren bidez ikasleek aurreko helburuak lortzeko aukera izango dute.

Oharra: Webgune honetan agertutako argazki eta bideoak helburu didaktiko eta hezkuntza-helbururako erabili dira, helburu ekonomikorik gabe.

3.2. Eranskina. Webgunearen testuingurua eta arauak

JOKOAREN TESTUINGURUA

Labirinto batean harrapatuta zaude, eta bertatik ateratzeko modu bakarra transgeneroen inguruko jarduera batzuk burutzea da. Beraz, trans identitateen errealitatea ikusi eta ulertzean, inguratzen zaituen gizarte anitza ondo ezagutzeko, ulertzeko eta errespetatzeko gai izango zara, pertsona bakoitza duintasunez eta berdintasunez tratatuz.


JOKOAREN ARAUAK

1. Ariketa guztiak bakarka eta euskaraz erantzun behar dira.
2. Ariketa guztiak erantzutea ezinbestekoa da.
3. Galderak errespetuz erantzun behar dira.
4. Jardueretan adi egotea eta interesa jartzea beharrezkoa da, ezagutzak behar bezala ulertu eta barneratu ahal izateko.

Ezkerra edo eskumara joateko aukera izango duzu, horren arabera jarduera desberdinak eginez. Animo!

Has zaitez!

3.3. Eranskina. Jardueren eskema



KOLOREAK	TRANSGENERO GAIA LANTZEKO ATAZA DESBERDINAK
	Oinarrizko kontzeptuak: sexua eta generoa
	Transgeneroa
	Transgeneroa eta transexuala izatearen desberdintasuna
	Orientazio sexuala
	Transfobia
	Transgenero gaiaren orokortzea

3.4. Eranskina. Abestia: *Sexua eta generoa desberdintzen*


Abestia:

<https://drive.google.com/file/d/1KwT8Wa2j5I91WBYQvYnqpePB5pepJYO0/view?usp=sharing>

3.5. Eranskina. *Sexua eta generoa berdina al da?* jarduera

The screenshot shows an interactive video player interface. At the top, a green header contains the title "Sexua eta generoa" on the left, a score of "14 PUNTU" in a white box in the center, and a timer of "00:38 DENERORA" on the right. The "educaplay" logo is in the top right corner. The main content area displays three human silhouettes with different genitalia highlighted in pink and yellow. From left to right, they are labeled "Gizonezko sexua", "Intersex", and "Emakumezko sexua". Below the silhouettes is a progress bar with a play/pause button on the left and five numbered markers (1, 2, 4, 5, 7) with corresponding timestamps: 00:09, 00:26, 00:39, 00:51, and 01:01:13.

3.6. Eranskina. *Nor da nor?* jarduera



3.7. Eranskina. *Ba al dakizu nor naizen?* jarduera

Jami arratoia pistaren gainean hau enfokatzeko eta irakurtzeko!

1. PISTA Mutla naiz	2. PISTA Artea gustatzen zait	3. PISTA Ez nikurra dut	4. PISTA Zakila dut	NOR NAIZ?
-------------------------------	---	-----------------------------------	-------------------------------	------------------

genially ASMATU!

3.8. Eranskina. *Eta zer da transgeneroa?* jarduera

Bideoa

100 PUNTU

00:24 DENBORA

4. **Bideoa**
Hala ere, gero konturatu da

- Laia zakila duen neska dela
- Laia ez dela neska
- Laia mutila dela

Aurrekoa

4/8

hurrengoa

3.9. Eranskina. *Transge...zer?* jarduera

Komikia

100 PUNTU

00:22 DENBORA

educaplay

5.



Komikia

Horman idatzi dagoen "Zakila=Mutila eta Alua=Neska" egia da?

Zure erantzuna

Aurrekoa 5/8 hurrengoa

3.10. Eranskina. Inguratzen gaituen gizartea ezagutzen jarduera

The image shows a digital presentation slide from Genially. The slide is divided into two main sections by a vertical black line with a question mark in a blue circle at the top. The left section is titled 'MUTILA' (Male) and contains two male human figures. The right section is titled 'NESKA' (Female) and contains three female human figures, with the middle one circled in blue. At the bottom of the slide, there is a row of ten human figures, alternating between male and female. In the bottom right corner, there is a yellow box with the text 'Erantzuna' (Answer). The Genially logo is in the bottom left corner, and a toolbar with various icons is at the top right.


3.11. Eranskina. *Mailaz igarotzeko gai al zara?* jarduera

Beraz, pertsona transgeneroak:

haien sexua eta generoa ez datoz bat

haien sexua eta generoa bat datoz

3.12. Eranskina. Irudi interaktiboa



3.13. Eranskina. *Hizkera egokia garatu* jarduera



Mikele neska edo mutila da?

Mutila da zilborra duelako

Neska eta mutila da

Neska da



3.14. Eranskina. *Sinonimoak al dira?* jarduera

**Transgeneroek ez dute
..... aldatzeko beharrik
eta transexualek bai**

haien begi kolorea haien genitalak haien generoa

genially

3.15. Eranskina. Transexual eta transgenero kontzeptuak desberdintzeko taula

PERTSONA TRANSEXUALA	PERTSONA TRANSGENEROA
HAIEN SEXUA ETA GENEROA EZ DATOZ BAT	
ZIRUGIA GENITALA EGIN DUTE EDO EGIN NAHI DUTE	EZ DUTE ZIRUGIA GENITALA EGIN EDO EGIN NAHI

3.16. Eranskina. *Orientazio sexualaren* bideoa


Bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=FID_4_XjhWE

3.17. Eranskina. Orientazio sexualaren azalpenak




3.18. Eranskina. Mitoak apurtzen jarduera


BIKOTE HETEROSEXUALA



A



B



genially


3.19. Eranskina. Egiaren bila jarduera

Orientazio Sexuala

100 PUNTU

00:51 DENBORA

4.



Orientazio Sexuala
Bikote heterosexuala ala homosexuala da?

Zure erantzuna

Aurrekoa

4/11

hurrengoa

3.20. Eranskina. Gaiaren errepasso taula

Beraz...

Honaino heldu bazara zenbait ezagutza argi izango dituzu:

Sexua eta generoa ez direla gauza berdina
Sexua eta generoa bat badatoz, pertsona zisgeneroa dela; aldiz, sexua eta generoa bat ez badatoz, pertsona transgeneroa.
Transgenero eta transexual izatea ez dela gauza berdina
Transgenero guztiak ez direla homosexualak

Beraz, hau guztia jakinda eta ezagututa, transgeneroak errespetuz tratatu behar direla uste duzu? Zergatik?

Aurrera

3.21. Eranskina. Ekairen istorioa

2018ko otsailaren 16a

EGUNKARIA

Ekai Lersundi

Ekai Ondarroan, 2001eko urriaren 13an jaio zen. Ekai alua zuen mutila zen, hau da, haur transgeneroa.



Ekaik ere bere institutuko irakasle eta ikasleek transexualitateari eta genero identitateari buruzko prestakuntza jasotzea nahi zuen, bai eskolan bai gizartean bere errealitatea ulertu eta errespetatzeko.

Horrez gain, Bartzelonan lehenago jasotzeko aukera bazuen ere, tratamendu hormonala Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatean egitea errebindikatu zuen. Artean bertako araudiak tratamendu mota hau 16 urtetik aurrera baimentzen zuen, baina onarpenak uste baino luzeago jo zuen, eta Lersundi sexu ezaugarri femeninoak garatzen hasi zen.


Berarentzat egoera larria izan zen hori; eta gurasoek presa sartu zuten prozesua bizkortzeko. Hala ere, egoerak gaztea gainditu zuen, eta 2018ko otsailaren 15ean, 16 urterekin bere buruaz beste egin zuen.

+info


3.22. Eranskina. Band: *Zer egingo zenuke Ekairen laguna izateko edo bera laguntzeko?*

The screenshot shows a Facebook Band page for 'Transfobia: Ekai'. The page header includes the 'BAND' logo, a search bar with the text 'Buscar Bands, Página, posts', and navigation icons for 'Noticias', a notification bell, a chat icon, and a profile picture. Below the header, there are tabs for 'Todos posts', 'Álbum', 'Evento', and 'Miembros'. The main content area features a profile picture of a person with glasses and a headset, the name 'Transfobia: Ekai', and a description: '1 Miembros · Invitar. Eta zuk, zer egingo zenuke Ekairen laguna izateko? El Band solo está abierto a los miembros con Invitaciones.' Below this is a post by 'Alazne Aja Portillo' dated '23 de mar. de 2020 10:39' with the text 'Eta zuk, zer egingo zenuke Ekairen laguna izateko edo berari laguntzeko?'. The post has 'Me gusta' and 'Comentar' buttons. On the right, there is a 'Chat' section with a 'Chat Nuevo' button and a chat window for 'Transfobia: Ekai'.

3.23. Eranskina. *Ezjakintasunaren kontrako sendagaia: abestea jarduera*



3.24. Eranskina. *Bidegabekeriaren aurkako borroka guztion artean irabaziko dugu jarduera*




3.25. Eranskina. Band: *Mikroipuina*


The screenshot shows a social media interface for a band named 'Mikroipuina'. At the top, there is an orange navigation bar with the word 'BAND' in a white box, a search bar containing 'Buscar Bands, Página, posts', and icons for 'Noticias', a notification bell, a speech bubble, and a profile icon 'A'. Below the navigation bar, there are tabs for 'Todos posts', 'Álbum', 'Evento', and 'Miembros'. The main content area is divided into three sections. On the left, there is a profile card for 'Mikroipuina lehiaketa!' featuring a trophy and fireworks icon. It shows '1 Miembros' and an 'Invitar' button. The description reads: 'Asma ezazu mikroipuina bat aurretik entzundako abestiek transmititzen zítuzten mezueta oinarrituta. Gaia azken hau izanda, bestelako ezugarri guztiak zuen esku daude, hau da, denbora, pertsonai ... Ver más'. Below this is a note: 'El Band solo está abierto a los miembros con Invitaciones.' and a gear icon for 'Ajustes del Band'. The middle section is a post input area with a search bar 'Palabra, #Hashtag, @Nombre', a text field '¿Qué estás pensando?', and a row of icons for adding photos, emojis, videos, audio, text, links, calendar, checklist, location, and more. The right section is a chat window titled 'Mikroipuina lehiaketa!' with a 'Chat Nuevo' button and a description 'Chatroom básico con todos los...'. At the bottom, there is a 'Tablón de la comunidad' section with a plus icon and the text 'Sé el primero en publicar'.

4. Eranskina. Balioztatze proba

4.1. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearen erabiltzaileen hezkuntza-maila




4.2. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearen ikaskuntza-garapena




4.3. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearen bidez ikasitako aipagarriena

IKASITAKO AIPAGARRIENA

- Transgenero kontzeptua
- Transgenero eta transexual kontzeptuen desberdintasuna
- Transgeneroekiko errespetua izatea
- Sexua eta genero kontzeptuen desberdintasuna



4.4. Eranskina. *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearen egokitasuna



4.5. Eranskina. *Sentitzen zarena zara material digital berritzailearen gomendioa*



4.6. Eranskina. Transgenero gaiaren lanketa ikasgeletan

